

Esportazioek %12,7 egin dute atzera 2024ko urtarrilean Euskal AEn

Inportazioak %4,8 murriztu dira, eta 116,1 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa izan da

Euskal AEko ondasunen **esportazioak** 2.376 milioi eurora iritsi ziren 2024ko urtarrilean, aurreko urteko hil berean baino %12,7 gutxiago, Eustatek landutako datuen arabera. **Inportazioei** dagokienez, %4,8ko jaitsiera izan da, eta inportazio ez-energetikoei %12,3 egin dute behera; aldiz, inportazio energetikoei %16,0 egin dute gora.

Merkataritza-saldoa positiboa da, 116 milioi eurora iritsi baita, %105,1eko estaldura-tasarekin.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila 2024

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila			Urtarrila		
	2023	2024	Gehikuntza (%)	2023	2024	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.720.420	2.375.909	-12,7	2.374.436	2.259.781	-4,8
ENERGIAZKO GAIAK	167.429	120.163	-28,2	628.931	729.564	16,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.552.992	2.255.745	-11,6	1.745.505	1.530.217	-12,3
URTEKO METATUA	2.720.420	2.375.909	-12,7	2.374.436	2.259.781	-4,8
ENERGIAZKO GAIAK	167.429	120.163	-28,2	628.931	729.564	16,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.552.992	2.255.745	-11,6	1.745.505	1.530.217	-12,3
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	929.035	766.905	-17,5	450.164	382.254	-15,1
URTEKO METATUA	929.035	766.905	-17,5	450.164	382.254	-15,1
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.041.069	899.795	-13,6	1.486.447	1.471.371	-1,0
URTEKO METATUA	1.041.069	899.795	-13,6	1.486.447	1.471.371	-1,0
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	750.316	709.208	-5,5	437.824	406.156	-7,2
URTEKO METATUA	750.316	709.208	-5,5	437.824	406.156	-7,2

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2024ko Marxoaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hil honetan Arabako esportazioak %17,5 jaitsi dira; Bizkaian %13,6 eta Gipuzkoan %5,5. Bizkaiko energia-esportazioak %26,7 gutxitu ziren aurreko urteko hil beraren aldean.

Araban, esportazioak "Garraio-materialean" kontzentratzen dira 417,1 milioirekin (guztizkoaren %54,4) eta "Metalak eta beren manufakturak" atalean 126,5 milioirekin (guztizkoaren %16,5), %24,2ko atzerakadarekin bi kasuetan.

Gipuzkoan, nazioarteko merkataritzaren ia %75 (%74,8) muga-zergen atalean bildu da, eta portaera desberdinak izan ditu urte arteko konparazioan: "Materiala, makinak eta tresna elektrikoak" (%+10,7), "Garraio-materiala" (%-9,4) eta "Metalak eta beren manufakturak" (%-7,2).

Bizkaian, gora egin dute garraio-materialak (%20,2) eta material, makina eta tresna elektrikoek (%3,6), eta behera egin dute produktu mineralek eta energetikoek (%-26,4, 123,3 milioi esportatuta), hau da, aurreko urteko hil berean baino 44,1 milioi euro eta 71.284 tona gutxiago; eta behera egin dute koipeek eta olioek (%-61,0) eta metalek eta beren manufakturek (%-18,0).

2024ko urtarrilean merkaturatutako produktuak

Produktuen xehetasunetara jaitsiz, 2024ko urtarrilean hamar **muga-zergen partida** nagusiek **esportazioen** %41,7 kontzentratu zutela ikus daiteke, 991,4 milioi euroko balio bateratuarekin.

25 muga-zergen partida nagusien barruan, azpimarratzekoak dira horietako hirutan izandako igoerak: "Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak" (%97,6 eta 19,5 milioi esportatuak), "Turborerreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (%59,1 eta 30 milioi) eta "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (%14,8 eta 197,4 milioi). "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" %24,1 jaitsi dira, "Petrolio-olio finduak" %30,6, "Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak" %29,0 eta "Barrak eta profilak, altzairu herdoilgaitzezkoak" %43,9.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2024

	2023	2024	2024 (%) ##	2024/2023 (%) ##
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.720.420	2.375.909	100,0	-12,7
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	307.700	233.577	9,8	-24,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	171.917	197.380	8,3	14,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	194.685	143.726	6,0	-26,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	121.319	127.220	5,4	4,9
Petrolioaren olio finduak	152.733	105.989	4,5	-30,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	63.786	45.310	1,9	-29,0
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	38.199	41.909	1,8	9,7
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	40.298	33.598	1,4	-16,6
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	38.772	32.625	1,4	-15,9
Turborerreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	18.874	30.022	1,3	59,1
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukierekin	23.886	27.825	1,2	16,5
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	36.771	27.320	1,1	-25,7
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	26.860	25.319	1,1	-5,7
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	22.536	25.150	1,1	11,6
Metal arruntezko giltzarriak, sarrailak, morroilo eta giltzak	17.861	23.865	1,0	33,6
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	38.806	21.765	0,9	-43,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	27.035	21.762	0,9	-19,5
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatutako batzuk	24.034	21.209	0,9	-11,8
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaerako euskarriak	16.225	20.008	0,8	23,3
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	19.861	19.559	0,8	-1,5
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, itzeko, etiketatutako makinak	16.440	19.511	0,8	18,7
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	21.644	19.474	0,8	-10,0
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	9.853	19.472	0,8	97,6
Kraft papera eta kartoiak, iztukatu edo estali gabea, bobina edo orritan	16.972	18.511	0,8	9,1
Beste manufaktura batzuk gogortu gabeko kautxu bulkanizatutakoak	18.174	17.860	0,8	-1,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Martxoaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, eta muga-zergen 25 partida garrantzitsuenen kasuan, hazkunde esanguratsuak honako hauetan kontzentratzen dira: "*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*" (%6,2 eta 456,0 milioi inportatuak), "*Petrolioaren olio finduak*" (%141,9 eta 178,3 milioi), "*Beroan ijeztutako produktu lauak, burdinazkoak edo aleatu gabeko eta xaflatu edo estali gabeko altzairuzkoak > 599 mm*" (%49,5 eta 80,6 milioi), "*Aluminio gordina*" (%85,5 eta 30,9 milioi) eta "*Soja-olioa*" (14,4 milioi).

Bestalde, jaitsi egin dira "*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*" atalaren erosketak: 122,2 milioitik (2023ko urtarrilean) 89,3 milioira (2024ko urtarrilean), tonatan 197.266 izatetik 144.139 izatera igaro da. Metagailu elektrikoen eta horien zatien inportazioak ere jaitsi egin dira (%-47,6).

ARABA. Esportazioak 2024ko urtarrilean

Araban esportazioak %17,5 gutxitu dira aurreko urteko hil beraren aldean. Portaera hori honako hauetan oinarritzen da batez ere: "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (217,7 milioi), %28,6ko jaitsierarekin; "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (143,4 milioi, %-26,2) eta "*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak*" (38,8 milioi, %-32,0). Hala ere, "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (62,6 milioi) %21,9 hazi dira.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	929.035	766.905	100,0	-17,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	305.145	217.740	28,4	-28,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	194.365	143.369	18,7	-26,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	51.389	62.643	8,2	21,9
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	57.054	38.783	5,1	-32,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	31.314	36.595	4,8	16,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	18.125	14.702	1,9	-18,9
Ardoa, mahats freskoarena	15.297	14.026	1,8	-8,3
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	9.139	11.386	1,5	24,6
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	6.225	7.854	1,0	26,2
Garraiatzeko edo ontziratzeke beirazko ontziak	6.091	7.379	1,0	21,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Martxoaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2024ko urtarrilean

Bizkaiko lurralde historikotik egindako esportazioek %13,6 egin dute atzera. "*Petrolio-olio finduak*" (%-29,0 eta 2023ko urtarrilean baino 42,5 milioi gutxiago) eta "*Altzairu herdoilgaitzezko barrak eta profilak*" (%-49,9, 16,7 milioi gutxiago) dira, partidarik garrantzitsuenen artean, beherakada horren erantzuleak.

Aitzitik, "*Turborerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gasezko gainerako turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne*" (%60,3 eta 29,9 milioi) eta "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (%11,9 eta 77,8 milioi) sektoreen salmentak hazi egin dira.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.041.069	899.795	100,0	-13,6
Petrolioaren olio finduak	146.791	104.287	11,6	-29,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	69.518	77.769	8,6	11,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	69.546	64.088	7,1	-7,8
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	18.649	29.889	3,3	60,3
Biodiesel eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	23.886	27.825	3,1	16,5
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	24.362	22.160	2,5	-9,0
Arrain izoztua xerratu gabe	26.978	17.472	1,9	-35,2
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	22.858	17.140	1,9	-25,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	16.545	16.985	1,9	2,7
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	33.493	16.774	1,9	-49,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Martxoaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2024ko urtarrilean

Gipuzkoako esportazioek %5,5 egin dute atzera hil honetan, nahiz eta igoera nabarmenak izan diren honako partida hauetan: *"Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak"* (%16,8), *"Makina-erremintak eta forjatzeko, estanpatzeko, zizailatzeko, puntzonatzeko, hozkatzeko, biribilkatzeko, kurbatzeko, tolesteko eta abarretarako"* (%195,9) eta *"Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak"* (%107,0 eta 17,3 milioi esportatu). Partida garrantzitsuenen artean, batez ere jaitsi dira *"Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak"* (%-15,7) eta *"Burdinazko edo altzairuzko gainerako manufakturak"* (%-15,8).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	750.316	709.208	100,0	-5,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	71.085	83.017	11,7	16,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	35.412	29.835	4,2	-15,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	22.599	26.964	3,8	19,3
Metal arruntzeko giltzarriak, sarriak, morroilo eta giltzak	16.419	22.167	3,1	35,0
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	15.395	18.502	2,6	20,2
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	18.426	17.403	2,5	-5,5
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	8.337	17.258	2,4	107,0
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	20.380	17.163	2,4	-15,8
Igogailuak, eskalera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	18.162	17.015	2,4	-6,3
Forjatzeko, estanpatzeko, zizailatzeko, puntzonatzeko, hozkatzeko, biribilkatzeko, kurbatzeko, tolesteko eta abarretarako makina-erremintak eta prentsak	5.593	16.546	2,3	195,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Martxoaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Jatorria-helmuga herrialdeak, 2024ko urtarrila

2024ko urtarrilean, bost herrialdek (Frantzia, Alemania, Italia, Estatu Batuak eta Erresuma Batua) osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko bezero nagusien taldea, esportatutako guztiaren %53 hartu baitute (1.259.3 milioi). Horietako hiru EB 27koak dira, eta %65,8 biltzen dute.

Frantzia, 442,9 milioi euroekin guztira, esportazioen xede bakoitzeko herrialdeen rankingaren lehen postuan dago hilabete honetan, eta honako hauek jasotzen dituen 650 produktu-moten artean nabarmentzen da: "*Petrolio-olio finduak*" (71,1 milioi), "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (32,0 milioi), "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (30,0 milioi), "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (23,4 milioi) eta "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (17,7 milioi).

Alemaniarako esportazioak 382,9 milioi eurokoak izan dira hil honetan, eta, batez ere, automobilaren sektorearekin lotutakoetan bildu dira, Frantziako kasuan bezala: "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (89,2 milioi), "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (52,4 milioi), "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (39,6 milioi) eta "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (24,1 milioi), guztira 411 produktuentzat.

Italia, hilabete honetan, hirugarren postuan dago 148,0 milioirekin, eta bere transakzioetan ere automobilaren sektorea da nagusi: "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (18,0 milioi), "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (12,3 milioi), "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (6,8 milioi), "*Hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (5,3 milioi) eta "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (4,2 milioi). Era berean, "*Soja-olio*" kantitate handia esportatu da (8,9 milioi) 435 produktutarako.

Estatu Batuetara 146,9 milioi euro esportatu dira. "*Petrolio-olio finduak*" (7,0 milioi), "*Biodiesel eta bere nahasketak*" (27,8 milioi), "*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak*" (13,1 milioi) eta "*Turborerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne*" (12,1 milioi) erosi ditu, 352 produktuentzat guztira.

Erresuma Batuak, hil honetan, Euskal AEko esportazio guztien %5,8 (138,7 milioi) biltzen du; horietatik 15,4 milioi "*Turborerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne*" eta 11,3 milioi "*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak*" dira; bi produktu horiez gain, garrantzitsuenak automobilgintzaren sektorean biltzen dira: 12,2 milioi "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*", 8,9 milioi "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" eta 7,3 milioi "*Kautxuzko pneumatiko berriak*", 397 produktu desberdinetarako, besteak beste.

Errusiara egindako esportazioak (4,3 milioi), funtsean, "*Ontziak eta paketatzeko gailuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak*" dira, 3,2 milioirekin; gainerakoa (1,1 milioi) 12 produktu desberdinetan banatzen da.

Gure **inportazioen** %43,1, hil honetan, EB 27tik atera dira. Ondasunak hornitzen dituzten herrialdeen artean, Alemania nabarmentzen da 236,1 milioiko transakzioekin, batez ere "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (23,4 milioi), "*Motor eta sorgailu elektrikoak (multzo elektrogenoak izan ezik)*" (8,2 milioi) eta "*Produktu lauak, ijeztuak, burdinazkoak edo aleatu gabeko altzairuzkoak > 599 mm*" (14,1 milioi).

Frantziari gehien eskatu zaion produktua, beste hilabete batez, "*Burdinurtu, burdina edo altzairuzko txatarra*" izan da, 24,7 milioirekin 157,7 milioi guztira 701 produktu motaren artean banatuta.

Estatu Batuetatik etorritako inportazioak (234,2 milioi) Frantziakoak eta ia Alemaniakoak baino handiagoak izan dira: "*Petrolio- edo mineral-olio bituminosoak*" (73,7 milioi), "*Soja-babak, baita hautsiak ere*" (62,4 milioi), "*Petrolio-olio finduak*" (55,0 milioi) eta "*Muntatutako gailu erdieroale fotosentikorak edo ez eta kristal piezoelektrikoak eta horien zatiak*" (%12,4). Aipatzekoa da hilabete

honetan ez dela erregistratu herrialde horretatik datorren "Petrolio-gasaren eta gainerako hidrokarburo gaseosoen" inportaziorik.

Nigeriatik 143,6 milioi "Petrolio edo mineral bituminosozko olio gordinak" inportatu dira, Mexikotik 102,4 milioi eta Brasildik 98,6 milioi.


Gehien inportatzen den produktu txinatarra ohiko "Metagailu elektrikoak eta horien zatiak" dira, 11,8 milioirekin. Nabarmentzekoak dira, halaber, "Motozikleten, bizikleten eta elbarrientzako ibilgailuen zatiak eta osagarriak" (6,4 milioi) eta "Txorrota-gaiak, balbulak eta antzeko organoak hodietarako" (4,2 milioi), 130,9 milioi guztira, 556 produktu desberdinen artean banatuta.

2024ko urtarrilean Errusiari 99,7 milioi euroko balioa eman zaio, hau da, "Aluminio gordina" (8,6 milioi) eta, batez ere, "Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosak" (89,1 milioi), hau da, Euskal AEk urtarrilean produktu horretatik inportatutako guztiaren %99,9.

Inportazio energetikoak, 729,6 milioi, honela banatu dira: 329,7 milioi Amerikatik (%45,2), 128,7 milioi Estatu Batuetatik, 102,4 milioi Mexikotik eta 98,6 milioi Brasildik; Europatik 173,8 milioi (%23,8) inportatu dira, Errusiaren (89,1 milioi), Erresuma Batuaren (37,8 milioi), Portugalen (24,1 milioi), Herbehereen (11,6 milioi), Belgikaren (5,9 milioi) eta Norvegiaren (4,2 milioi) artean; Afrikatik 143,6 milioi Nigeriatik; Asiatik 82,5 milioi ia guztiak Saudi Arabiatik (81,3 milioi).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62